

5. Laborategia

Hurrengo enuntziatuei dagokien Visual Basic-en kodea idatzi. 4. eta 5. ariketen fluxu-diagramak **orri batean** idatzi:

1. Bi hitz eskatuta, esan bietako luzeena zein den.
2. Eskatu erabiltzaileari bere izena eta abizena, eta karaktere-kate bakar batean lotu. Ondoren, esan guztira zenbat karaktere dituen

Adibidez,

Eman zure izena: *Patxi*

Eman zure abizena: *López*

Zure izen-abizena *Patxi López* da eta *11* karaktere ditu

3. Eskatu erabiltzaileari hitzak eta hitz bakoitzaren luzera pantailaratu. “agur” idatzitakoan, programa amaituko da.
4. Karaktere-kate bat emanda, esan lehenengo “a” zenbagarren posizioan dagoen. “a”rik ez balego, eman errore bat.

Adibidez,

Eman hitz bat: *fary lehendakari*

Lehenengo “a” 2. posizioan dago

5. Hitz bat eta letra bat emanda, esan letra hori hitzan zenbat aldiz azaltzen den. Emandako letra karaktere bat baino gehiago balitz, errore bat eman.

Adibidez,

Eman hitz bat: *Guakamaio*

Eman letra bat: *a*

a letra 3 aldiz azaltzen da *Guakamaio* hitzan

6. Hitz bat emanda, buelta emanda pantailaratu.

Adibidez,

Eman hitz bat: *kaixo*

oxiak